OÑATIKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE OÑATI
Oñatiko Erakusleiho Lehiaketako oinarri arautzaileak eta 2026ko deialdia.	**Bases reguladoras y convocatoria 2026 del Concurso de Escaparates de Oñati.**
Iragarkia	**Anuncio**
Oñatiko Udalak, 2026ko urriaren 29an egindako osoko bilkuran, besteak beste, honakoa	El Ayuntamiento de Oñati, reunido en sesión plenaria el día 29 de octubre de 2026, adopta, entre otros, el siguiente
ERABAKI DU	ACUERDO
Lehenengoa. **Oinarrien onarpena** Oñatiko Erakusleiho Lehiaketaren oinarriak onartzea.	**Primero.** **Aprobación de las bases** Aprobar las bases del Concurso de Escaparates de Oñati
Bigarrena. **Deialdiaren onarpena.** 2026. urterako Oñatiko XIX. Erakusleiho Lehiaketaren deialdia onartzea.	**Segundo.** **Aprobación de la convocatoria.** Aprobar la convocatoria 2026 correspondiente al XIX. Concurso de Escaparates de Oñati.
Finantzazioa. 2026ko deialdia finantzatzeko 1000.480.241.06.01 2026 (5655) diru-ataletik eta bere lotespen mailatik sarientzako 2.000€ko gastua eta parte hartzaile bakoitzarentzat 50€ko laguntza baimentzea, behin betiko kopurua izena emateko epea amaitzen denean zehaztuko delarik.	**Financiación.** Para la financiación de la convocatoria 2026 autorizar un gasto de 2.000 € para premios y una ayuda de 50 € para cada participante, con cargo a la partida presupuestaria 1000.480.241.06.01 2026 (5655) y su nivel de vinculación, y el importe final se determinará una vez finalice el plazo de inscripción.
Epeak. Onartzea 2026ko deialdiari dagozkion epeak:	**Plazos.** Aprobar los plazos correspondientes a la convocatoria 2026:

- Lehiaketan izena emateko epea: 2026ko azaroak 27.
- Erakusketaren epea: 2026ko abenduaren 9tik abenduaren 31ra bitartean.
- Herritarren sariaren bozketan parte hartzeko epea: 2026ko abenduak 16ko eguerdiko 14:00ak arte.
- Haurren sariaren bozketan parte hartzeko epea: 2026ko abenduak 16ko eguerdiko 14:00ak arte.
- Sari banaketa ekitaldia: 2026ko abenduaren 17an.

- Plazo de inscripción: 27 de noviembre del 2026.
- Plazo de la exposición: Del 9 al 31 de diciembre de 2026.
- Plazo para participar en la votación del premio popular: Hasta las 14:00 horas del 16 de diciembre de 2026.
- Plazo para participar en la votación del premio infantil: Hasta las 14:00 horas del 16 de diciembre de 2026.
- Entrega de premios: 17 de diciembre de 2026.

Hirugarrena.

Dokumentazioa aurkeztea.

Erakusleiho lehiaketan izena emateko inprimakia eta oinarriak Oñatiko Udalaren webgunean kontsultatu eta eskuratu daitezke, "Sozioekonomia Departamenduak kudeatzen dituen programaren kontura emango diren dirulaguntzak" atalean.

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Oñatiko Udalak, Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, diru-laguntza hauek jaso ahal izateko baldintzak betetzen diren egiaztatzeko beharrezko informazioa kontsultatuko du zuzenean.

Egiaztapen horren aurka egiteko aukera egongo da, eta, kasu horretan, eskatzaileak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Tercero.

Presentación de documentación.

El formulario de inscripción y las bases del concurso de escaparates se podrán consultar y obtener en la web del Ayuntamiento de Oñati, en el apartado correspondiente a las "Subvenciones gestionadas por el Departamento de Socioeconomía".

De conformidad con lo establecido en el artículo 28 de la Ley 39/2015 y en el artículo 6.1 del Reglamento (UE) 2016/679, el Ayuntamiento de Oñati, a través del nodo de interoperabilidad Nisae, consultará directamente la información necesaria para verificar los requisitos establecidos para estas ayudas.

La persona solicitante tendrá opción a oponerse a esa verificación, en cuyo caso deberá presentar la documentación pertinente.

Laugarrena.

Erabaki honen bidez onartutako deialdiak eragina izango du Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari.

Interesdunek Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa jarri ahal izango dute zuzenean erabakiaren aurka Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, partikularrek, aldez aurretik, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Gobernu Batzordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri berraztertzekoa berariaz ebatzi arte edo presuntzioz ezetsi arte. Hori guztia, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkezteari kalterik egin gabe.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hau.

Oñati, 2026ko urriaren 29an.—Alkatea.

Cuarto.

La convocatoria aprobada mediante el presente acuerdo surtirá efectos desde el día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él Recurso Contencioso-Administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso Potestativo de Reposición ante la Junta de Gobierno, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

Oñati, a 29 de octubre de 2026.— La Alcaldesa.

OÑATI
dabilen herria

OÑATIKO XIX. ERAKUSLEIHO LEHIAKETAREN OINARRIAK.

1.- Parte hartzea.

- Lehiaketa honetan Oñatiko denda eta zerbitzu-establezimendu guztiek parte hartu ahal izango dute.
- Parte-hartzaile bakoitzak 50 euroko laguntza jasoko du lehiaketan parte hartzeagatik.

2.- Lehiaketan izena ematea.

- Izena ematea Oñatiko Udalaren Erregistroaren bidez egin beharko da. Horretarako, deialdiarekin batera bidalitako izen-emate orria bete eta aurkeztu beharko da, eta dirulaguntza jasotzeko kontu korrontearen zenbakia ere adierazi beharko da.

- Izena emateko eta erakusleihoak apaintzeko epeak deialdian zehaztuko dira.

3.- Erakusleihoaren edukia.

Erakusleihoan establezimenduaren ohiko jarduerari dagozkion produktu edo zerbitzuak erakutsi beharko dira.

4.- Sariak.

Oñatiko Udalak honako sari hauek emango ditu:

- Lehen saria: 500 €
- Bigarren saria: 300 €
- Hirugarren saria: 200 €
- Herritarren saria: 500 €
- Haurren saria: 300 €

5. Epaimahaiaren osaera.

- Epaimahaia erakusleiho-apainketan adituak direnek eta aurreko urteko lehiaketako irabazleak osatuko dute.

BASES DEL XIX. CONCURSO DE ESCAPARATES DE OÑATI.

1.- Participación.

- Podrán participar en este concurso todos los establecimientos comerciales y de servicios de Oñati.
- Cada participante recibirá una ayuda de 50 euros por su participación en el concurso.

2.- Inscripción en el concurso

- La inscripción deberá realizarse a través del Registro del Ayuntamiento de Oñati. Para ello, deberá cumplimentarse y presentarse el formulario de inscripción que se adjunta a la convocatoria, indicando asimismo el número de cuenta corriente en el que se desea recibir la ayuda.
- Los plazos de inscripción y de exposición de los escaparates se establecerán en la convocatoria.

3.- Contenido del escaparate.

En el escaparate deberán exponerse productos o servicios propios de la actividad habitual del establecimiento.

4.- Premios.

El Ayuntamiento de Oñati concederá los siguientes premios::

- Primer premio: 500 €
- Segundo premio: 300 €
- Tercer premio: 200 €
- Premio popular: 500 €
- Premio infantil: 300 €

5.- Composición del jurado.

- El jurado estará compuesto por personas expertas en escaparatismo y por la persona o establecimiento ganador del concurso del año anterior.

- Lehen, bigarren eta hirugarren sariak epaimahaiak aukeratuko ditu.

- Epaimahaiaren erabakia behin betikoa izango da.

6.- Balorazio irizpideak.

Erakusleihoak baloratzerakoan, epaimahaiak honako irizpide hauek izango ditu kontuan:

- **Lehen inpresioa:** Erakusleihoak sortzen duen lehen inpresioa eta ikusizko inpaktua.

- **Estrategia komertziala:** Erakusleihoak marketin-tresna gisa betetzen duen helburu komertziala.

- **Sormena eta originaltasuna:** Ideia edo kontzeptu bat modu originalean aurkeztea, bai maila kontzeptualean, bai ikusizkoan.

- **Konposizioa:** Erakusleihoa osatzen duten elementuak modu egoki eta atseginean antolatuta egotea, oreka eta erritmo egokiak lortuz.

- **Argiztapena:** Erakusleihoaren kontzeptua nabarmentzeko argiztapenak ingurune edo giro egokia sortzea eta produktuak behar bezala ikusteko aukera ematea.

- **Gama kromatikoa edo koloreak:** Aukeratutako koloreen arteko harmonia eta koloreek erakusleihoari ematen dioten itxura atsegina.

7.- Herritarren saria.

- Herritarren saria bozketa bidez aukeratuko dute Oñatiko herritarrek. Boto gehien jasotzen duen erakusleihoa izango da sari honen irabazlea.

- El jurado será el encargado de seleccionar el primer, segundo y tercer premio.
- La decisión del jurado será definitiva.

6.- Criterios de valoración.

A la hora de valorar los escaparates, el jurado tendrá en cuenta los siguientes criterios:

- **Primera impresión:** La primera impresión y el impacto visual que genere el escaparate.
- **Estrategia comercial:** Se valorará la finalidad comercial que cumple el escaparate, como herramienta de marketing.
- **Creatividad y originalidad:** Se valorará la presentación original de una idea o concepto, tanto a nivel conceptual como visual.
- **Composición:** Se valorará que los elementos que componen el escaparate estén organizados de forma adecuada y agradable, creando un equilibrio y un ritmo apropiados.
- **Iluminación:** Se valorará que la iluminación contribuya a destacar el concepto del escaparate, creando un ambiente adecuado y permitiendo visualizar correctamente los productos.
- **Gama cromática o colores:** Se valorará la armonía entre los colores elegidos y el aspecto agradable que estos aporten al escaparate.

7. - Premio popular

- El Premio popular será elegido mediante votación por la ciudadanía de Oñati. El escaparate que obtenga el mayor número de votos será el ganador de este premio.
- La elección del Premio popular se realizará mediante votación por

- Herritarren saria aukeratzeko bozketa Internet bidez egingo da. Bozkatzeko QR kodeak abenduko Kontzejupetik aldizkarian, Udalaren webgunean eta lehiaketan parte hartzen duten erakusleihoetan jarriko dira.

- Herritar bakoitzak boto bakarra eman ahal izango du.

- Bozketan parte hartzeko epea deialdian zehaztuko da.

- Herritarren sariaren bozketan parte hartzen duten pertsona guztien artean, Oñatiko saltokietan gastatzeko 100 euroko bonua zozkatuko da.

Internet. Los códigos QR para poder votar se publicarán en la revista Kontzejupetik del mes de diciembre, en la página web del Ayuntamiento y en los escaparates participantes en el concurso.

- Cada persona podrá emitir un único voto.
- El plazo para participar en la votación se establecerá en la convocatoria.
- Entre todas las personas que participen en la votación del Premio del Público se sorteará un bono de 100 euros para gastar en establecimientos comerciales de Oñati.

8.- Haurren saria.

- Haurren saria bozketa bidez aukeratuko dute Oñatiko haurrek. Boto gehien jasotzen duen erakusleihoa izango da sari honen irabazlea.

- Haurren sariaren aukeraketan 5 eta 12 urte bitarteko Oñatiko haurrek parte hartu ahal izango dute.

- Bozkatzeko orriak abenduko Kontzejupetik aldizkarian banatuko dira, eta botoa emateko hautestontziak Txaloka ludotekan, Gaztelekuan egongo dira.

- Haur bakoitzak boto bakarra eman ahal izango du. Bozketan parte hartzeko epea deialdian zehaztuko da.

- Haurren sariaren bozketan parte hartzen duten pertsona guztien artean, Oñatiko saltokietan gastatzeko 100 euroko bonua zozkatuko da.

8.- Premio infantil

- El Premio Infantil será elegido mediante votación por los niños y niñas de Oñati. El escaparate que obtenga el mayor número de votos será el ganador de este premio.
- En la elección del Premio Infantil podrán participar los niños y niñas de Oñati de entre 5 y 12 años.
- Las papeletas de votación se distribuirán en la revista Kontzejupetik del mes de diciembre, y se habilitarán urnas para depositar los votos en la ludoteca Txaloka, y en el Gazteleku.
- Cada niño o niña podrá emitir un único voto. El plazo para participar en la votación se establecerá en la convocatoria.
- Entre todas las personas que participen en la votación del Premio Infantil se sorteará un bono de 100 euros para gastar en establecimientos comerciales de Oñati.

OÑATI
dabilen herria

9.- **Sari banaketa.**

- Sari-banaketa ekitaldiaren data eta ordua deialdian zehaztuko dira.
- Sariak saritutako establezimenduetan bertan jakinarazi eta banatuko dira.

10.- Oñatiko Udalak, Nisae - Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horretaz gain, zerbitzuaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administraziok egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikuluak adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Oñatiko Udalak honako zerbitzuak kontsultatuko ditu Nisae Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoaren bidez:

9.- **Entrega de premisos.**

- La fecha y hora del acto de entrega de premios se concretará en la convocatoria.
- Los premios se darán a conocer en los comercios que vayan a ser premiados.

10.- El Ayuntamiento de Oñati realizará mediante Nisae - Nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi, las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, así como cualquier otra requerida para la tramitación administrativa del presente servicio. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concrete en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por la persona interesada a cualquier Administración.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.

El Ayuntamiento de Oñati va a consultar los siguientes servicios a través de Nisae - Nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi:

- Gipuzkoako Foru Aldundia: Zerga-betebeharren ordainketa egunean edukitzea kontsulta.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: GSND-arekiko betebeharren ordainketa egunean edukitzearen kontsulta.
- Diputación Foral Gipuzkoa: Consulta de estar al corriente de obligaciones tributarias.
- Tesorería General de la Seguridad Social: Consulta de estar al corriente de pago de obligaciones con TGSS.